

## **HIZTEGIA**

Hiztegiaren erabilera onerako klase-hasieran ikasleei banatzea eta, hitzak banan-banan hartuta, haien esanahiari buruz mintzatzea proposatzen da.

Gida didaktikoaren barruan aurkituko duzuen hiztegi teknikoak bai bideoan teoria agertzerakoan, bai inguru profesionalean erabiltzen diren oinarrizko hitzez osatua dago.

## **LIBURUAK**

Proposatzen diren liburuak zerikusi estua daukate kameraren eta argien munduko gaiekin eta ikasgaiekin, bai alderdi artistikoa jorratu nahi duenak erabiltzeko, bai alderdi teknikoa jorratu nahi duenak erabiltzeko.

Errealizazioa deitu dugun atalean agertzen diren liburuak sakonagoak dira, eta gaien gehiago sakondu nahi duten ikasle eta irakasleei zuzenduak daude.

## **BIDEO KAMERA ETA ARGIZTATZEKO TRESNERIA**

### **1. KAPITULUA**

#### **GRABATZEKO OINARRIZKO TRESNERIA**

##### **Sarrerako hitzak**

Bideo-kamera guztiak berdinak al dira? Zertarako dira botoi edo pultsadore horiek? Beharrezkoa al da tripodea? Eta monitorea? Edozein entzungailuk balio du? Galdera horiek guztiak eta gehiago erantzungo ditugu bideo honetan, grabazioak moldez egiteko behar diren gutxieneko tresnak ezagut ditzazuen.

Lantegia izendatu dugun atalean, bideo-kamera beti prest nola eduki ikasiko dugu.

##### **Atalak**

- |                           |                             |
|---------------------------|-----------------------------|
| -Bideo-kamerak            | -Bideo-kameraren objektiboa |
| -Ikusgailua               | -Bideo-sistemak             |
| -Bideo-kameraren osagaiak | -Monitorea                  |
| -Entzungailuak            | -Bideo-kameraren euskarriak |

-LANTEGIA ATALA: grabazio-tresnak nola zaindu

## **LANTEGIA ATALA: grabazio-tresnak nola zaindu**

*Lantegia atala ikusi ondoren, ikus-entzunezkoan aipatu diren beharrak eta zaintzak zerrenda batean jaso idatziz.*

*Zerrendara aldatu ditugun zaintza-lanen gaineko hausnarketa egiteko proposatuko diegu ikasleei lan horien guztien garrantziaz jabe daitezen.*

Bideo-kamera eta haren osagarriak zaintzeko aipuak:

Grabatu behar ez dugun bakoitzean, ahaztu gabe, objektiboaren lentea estali.

Bideo-kamera estaltzeko, euritako bat edo oihal babesle bat izan beti eskura.

Grabatu behar ez dugunean, bideo-kamera beti bere zorroan izan.

Tripodearen loturak ez dago zertan lotu azken muturreraino.

Kableak ahalik eta biribil zabalenak eginez bildu.

Baterien karga egiaztatu eta haien funtzionamenduari jarraipena egin.

## **HIZTEGIA**

**Entzungailuak:** grabatzen ari garela zinta grabatura iritsiko diren soinu-seinaleak nahiz grabatutako soinu-seinaleak entzuteko erabili ohi den tresna.


**Bideo-formatuak:** analogikoak eta digitalak.

**Mikrofonoa:** euskarri magnetiko batean grabatzeko soinu-seinaleak seinale elektriko bihurtzen dituen gailua.


**Monitorea:** tamaina txikiko baina kalitate handiko telebista, ikus-entzunezkoen grabazioetan irudiaren kalitatea kontrolatzeko erabiltzen dena.

**Bideo-kameraren objektiboa:** irudia eratuko duen argia sentsoreraino bideratzeaz arduratzen den gailua.

**Ikusgailua:** bideo-kamera hartzen ari den eszenako zatia erakusten duen gailua.



- 1.- Argi-babeskia.
- 2.- Fokatzeko uztaia.
- 3.- Eskuz edo modu automatikoan fokatzeko hautagailua.
- 4.- ND iragazkiaren agintea.
- 5.- Ikusgailu elektronikoa.
- 6.- Bideo-kamera pizteko agintea.
- 7.- Esposizioa, obturazio-lastertasuna, zuriaren balantzea doitzeko agintek eta kolorea orekatzeko iragazkiaren eta irabaziaren hautagailuak.
- 8.- Baterien kokalekua.
- 9.- Kanpotiko argindar hornidura.
- 10.- Denbora-kodea, azken irudiaren amaia eta soinua jasotzeko modu automatikoa edo eskuzkoa hautatzeko giltzak.
- 11.- LCD pantaila.
- 12.- Soinuaren bolumenaren adierazgailua.
- 13.- Distira.



- 14.- eject agintea.
- 15.- Euskarri magnetikoaren kokalekua.
- 16.- Zooma nmartxan jartzeko agintea.
- 17.- Grabatutakoa ikusteko agintek.
- 18.- Osagarrientzat zapata.
- 19.- Kanpoaldeko mikrofonoaren konektorea.
- 20.- Bideo-kameraren mikrofonoa.
- 21.- Bideo- eta soinu-seinaleen sarrera-irteerak.

## **LIBURUAK**

### **Bideo-kamera eta argizatze tresneria**

MILERSON, Gerald: *Cómo utilizar la cámara de video*, Gedisa, Bartzelona, 1998

SWUAISON, G eta LYVER, Des: *La iluminación en video, Principios básicos*. Gedisa, Bartzelona, 1997

MILERSON, Gerald: *Iluminación para televisión y cine*, IORTV, Madril, 1996

ARONOVICH, R.: *Exponer una historia. La fotografía cinematográfica*, Gedisa, Bartzelona, 1997

### **Errealizazioa**

CHESHIRE, David: *Manual de cinematografía*, Blume, Madril, 1981

FELDMAN, Simon: *La composición de la imagen en movimiento*, Gedisa, Bartzelona, 1995

FELDMAN, Simon: *La realización cinematográfica*, Gedisa, Bartzelona, 1997

### **Internet**

[www.imagendv.com](http://www.imagendv.com)

[www.quesabesde.com](http://www.quesabesde.com)

**SERIA OSATZEN DUTEN KAPITULUAU**

- 1.- GRABATZEKO OINARRIZKO TRESNERIA**
- 2.- BIDEO KAMERAREN OBJEKTIBOA**
  - 3.- MUGIMENDUA IRUDIAN**
  - 4.- ARGIA**
- 5.- ARGIZTATZEKO OINARRIZKO TRESNERIA**
- 6.- ARGIZTATZEKO TRESNA ETA OSAGARRIAK**
- 7.- ARGIZTAPENAREN OINARRIZKO PRINTZIPIOAK**
  - 8.- NOLA ARGIZTATU KANPOALDEAN**
  - 9.- ARGIZTATZEKO TEKNIKA BEREZIAK**
  - 10.- PRODUKZIOA ETA ENTSEGUAK**
  - 11.- GRABATZEN**

**Ekoiizlea:**

**iadi**

LG.- VI-34 / 06

**Banatzaillea:**



Getaria, 18-behea, 01010-Gasteiz  
Tel-faxa: 945200608  
artez@ikusentzunezkoa.euskalnet.net

Ikasmaterial honek  
Hezkuntza, Unibertsitate  
eta Ikerketa Sailaren  
egokitasun-aitormena du.

**2006/03/06**